



TXIKITTO!

2021eko urria 202. zenbakia



BERRIRO ERE GU KAZETARI

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK.....	11-12
IKASLEEKIN.....	4-5	LEHIAKETA.....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA.....	15
AITXITXA-AMAMEKIN..	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
SUKAL-SALTSAN.....	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Maketazioa
Ana Aizpurua

Ikus-entzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Maidar Aranberri

Copyright-a
Txikitto!


Lege-gordailua
SS-1111/96





Lagun batek besteari:

- Aitor, aterako didazu argazki bat mugikorrarekin?
- Ez dut memoriarik.
- Ba borratu argazki batzuk.
- Zertarako?
- Argazki bat ateratzeko niri.
- Ze argazki?



- Ama, ama, eskolan detektibe deitzen didate!!
- Eta zuk zer esaten diezu?
- Shhhh, hemen galderak nik egiten ditut.

Aitak Jaimitori:

- Urrundu zaitez lehoiaren kaiola ondotik!
- Lasai, aita! Ez diot ezer egingo!



Mirenek andereñori:

- Andereño, egin ez dudan zerbaitengatik zigortuko ninduzun?
- Ez, Miren, horixe ezetz!
- Eskerrak! Etxekolanak ez ditut egin-eta!

- Ama, ama, zein egunetan jaio nintzen?

- Apirilaren 22an.
- Hara! Hori da kasualitatea! Nire urtebetetze egunean justu!



- Iñaki, esaidazu tilde duten bi hitz.
- Matilde eta Klotilde, andereño.



Nola bizi izan duzue COVID-19aren pandemia? Zer iruditzen zaizue hartu dituzten neurriak?



BIDEOA



Aldatze ikastetxeko ikasleak pandemia aurreko normaltasunera itzultzen ari dira poliki-poliki, nahiz eta oraindik zentroan maskara erabili behar duten, besteak beste. Azken urte bietan umeen inguruan asko egin da berba pandemiari dagokionez, baina eurek zer dute esateko horren inguruan? Aldatzeko lagunek honakoa kontatu digute.

EIDER VARONA,
10 URTE



Konfinamendu sasoiari oso txarto pasatu nuen, kalera irteteko beharra dudalako beti. Distantzien eta maskaren kontuak, ostera, ez dit hainbeste eragin. Hala ere, joan den ikasturtean bakarka jartzen ginen klasean, ez taldeka, lehen bezala. Orain, ostera, taldeka jartzen gara berriz eta nahiago dut horrela. Dena dela, nahiko berezia naiz nire gauzekin eta ez zait asko gustatzen nire gauzak partekatzea eta esku batetik bestera ibiltzea (barreak).

UNAI MENDEZ,
10 URTE



Nik maskarekin eta betaurrekoekin izan ditut arazoak, lurrundu egiten zaizkidalako. Zorionez, badago produktu bat kristalean jartzen duzuna eta betaurrekoak lurruntzea ekiditen duena. Bestetik, egoera hau guztia ez da gozagarria izan, baina alde onari begiratuz gero, etxean geratzea gustatu zait. Poliki-poliki bagabiltza normaltasunera itzultzen eta hasi gara lanak taldean egiten eta abar. Nahiago dut talde-lana egin, horrela ez dugulako lan askorik egin behar (barreak). Bestalde, lau aldiz egon naiz konfinatuta ingurukoek positibo eman dutelako, baina ni ez naiz gaixotu.



**JON SAN JULIAN,
9 URTE**

Eskolan zenbait neurri hartu ditugu COVID-19ari aurre egiteko. Lagunek esandakoaz gain, eskuetan gela eman behar izaten dugu, garbitzeko; eta leihoak zabalik eduki behar izaten ditugu. Orain ondo dago horrela, baina kanpoan hotz egiten duenean... Bestalde, etxean geratu behar izan naizenean, arrebak lagundu egin dit etxeko lanak egiten



**MIREN BOLINAGA,
11 URTE**

Hartutako neurrien artean, jolastorduak modu ezberdinean antolatu ditugu. Horrela, jolastokia hiru zatitan dago banatuta, beste gelako ikasleekin kontaktu zuzena ez izateko. Hau da, burbuilak ditugu. Gainera, ikasleren bat etxean konfinatuta geratu behar baldin bada, bideodei bitartez klaseak jarraitu ditzake. Ez da gauza bera, baina bada zerbait.



**IRAI GARCIA,
12 URTE**

Hartu diren neurrien artean, maskara erabiltzeak traba pixka bat egiten dit. Jolastorduan, nahiz eta aire librean egon, maskarak erabili behar ditugu eta ez da oso erosoa, baina tira. Gainera, eskolatik irteten garenean kendu egin dezakegu... eta jende berarekin egoten naiz! Egia esan, zaila da kalean metro eta erdiko distantziari eustea, dagoen tokiaren arabera.



**JON ALONSO,
11 URTE**

Konfinamenduan, etxean egon ginen bitartean, hala nola moldatu ginen eskolako gauzak egiteko, baina orain hobeto gabilta. Izan ere, klasean irakasleek gauzak hobeto azaldu ditzakete eta zalantzak argitzea askoz errazagoa da. Bestalde, pandemia hasi zenetik ez dugu irteerarik egin eta badugu gogoia. Txango bat gutxienez!



ALDATZE

Aldatzeko LH 5. eta 6. mailakoek dagoeneko lantalde kooperati-
boak antolatu dituzte. Ikasleak launaka eserita daude, partaide ba-
koiatzak rol bat dauka eta rolaren arabera eginkizun batzuk burutu
behar ditu taldearen funtzionamendua egokia izan dadin. Rolak
hauek dira: idazkaria, bozeramailea, koordinatzailea eta gainbegi-
ratzailea. Lantaldeari izen eta marrazki bat ipintzen diote eta mahai
bakoitzean rolaren izena agertzen da. Ikasleak lantalde berean
egongo dira hiruhilabetea bukatu arte, baina rola hiru astetik behin
aldatuko dute, eta horretarako talde barruan eserlekuz aldatzen
joango dira.

Hau guztia zertarako? Batak besteari laguntzeko eta elkar errespetatuz,
guztion hobebeharrez lan egiten ikasteko. Ez da gutxi!!



URKIZU



Urkizu eskolan ikasturtea pozik hasi dugu, baina ea noiz
kendu ahal izango dugun musukoa. Oso astuna egiten
zaigu denbora guztian eraman behar hori.

Hasiak gara ekintza berezi batzuk egiten. Ziur hurrengo
alean gauza gehiago izango ditugula kontatzeko.
Irailaren 30ean, LH 6. mailakoek “Klima aldaketaren
tailerrak” egin zituzten. Leire izeneko andereño bat etorri
zen eskolara eta esperimendu ikusgarri eta dibertigarriak
eginarazi zizkigun.

Urriaren 1ean, maila berekoak, trenez Zumaiara joan
ziren egun-pasa. Eguraldi aproposa tokatu zitzairen eta
zoragarri ibili ziren. Ausartenak, asko izan ziren, uretara
sartu eta gozatu zuten. Nonbait ez zuten hotzik sentitu.

J.A. MOGEL

J.A. Mogel Ikastolako 1. mailako ikasleak Arratera
joan ziren. Eguraldi ederra izan zuten eta autobusak
Ixuan utzita abiatu ziren ibilaldi polita eginez. Bi-
dean zehar, hamarretakoa jateaz gain, paisaia politaz
disfrutatu ahal izan zuten eta tarteka ondo disfruta-
tzeko geldialdiak egin zituzten.

Bestalde Ikastolako 6. mailako ikasleek, Salburuako
parkea bisitatu ondoren, Zuhatzako irlara 3 eguneko
irteera egiteko aukera izan zuten. Bertan uretako
zenbait kirol praktikatzeko aukera izan zuten: arrau-
na, optimis, pedaloak, piraguak...






AMAÑA

Aurten, Amaña ikastetxeko 4. eta 5. mailako ikasleak miniaturako Akuaponia batekin saiaturako gara ikasten nola erlazionatzen diren arrainak eta landareak modu jasangarrian.

Arrainari jaten ematen diogu eta uraren PH-a zaintzen dugu.

Landare haziak ere jarri ditugu eta, horrela, arrainak landarea elikatuko du eta landareak ura garbituko du. Oraindik landareak ez dira behar den bezala hazi.



SAN ANDRES

San Andres ikastetxeko 4. mailako ikasleak buru-belarri hasi dira mineralen proiektuarekin. Hori dela eta, meategi batean lanean ibilitako aitzitxa eta Leoneko ibaietan urre bila aritutako amama gonbidatu dituzte eskolara. Zenbat informazio eta bizipen jaso izan duten!

ARRATEKO ANDRA MARI

Zer moduz hasi duzue ikasturte berria? Arrateko Andra Marikoak indarberrituta etorri gara, eta pozik gaude irteera eta ekintza ezberdinak egin ahal izango ditugulako, irrikitan gaude, motxila prestatu eta autobusez mundua ezagutzeko!!! Joango gara zuei poliki-poliki kontatzen. Ikasturtea gogotsu hasteko, LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleek, irailaren azken astean, gorputz-hezkuntzako saioan mendi irteeratxo bat egin zuten, gure ingurua ezagutu eta naturaz gozatzeko aukera aparta! Honetaz gain, irailaren 29an ASTEKLIMA tailerrak izan zituzten eskolako aretoan, Aupa gure zientzialariak!! Hurrengo arte, ondo hasi ikasturte berria!!



LA SALLE

Udako oporrak pasa ondoren, jo eta ke lanean martxan hasi gara La Salle ikastetxean. Proiektuekin hasita gaude eta horrekin lotuta 1go mailakoak ikastetxe inguruko parkeak garbitzera irten ziren. Esperientzia bikaina izan zen, baina zabor pila bat lurrera botatzen dugula konturatu ziren.

3. ziklokoek pasabideak alaitu dizkigute ukelelea jotzen. Benetan ikusgarria, batez ere gure txikientzat. Azkenik, 5 urtekoak, Coliseora "Koko dragoi txikia oiha-nean" filma ikustera joan ziren. Batzuentzat esperientzia berria izan zen zinema-areto batean sartzea eta izugarri pozik bueltatu ziren eskolara.



Marian Alonso eta Nora Iriondo

«Gure etxeko lehenengo garbigailua ikustera bizilagunak etorri ziren!»

Orain dela bi ikasturte ilusio osoz jarri genuen martxan atal hau. Gure aitxitek eta amamek gauza interesgarri asko dituzte guri kontatzeko eta asko ikasten dugu eurekin. Zoritxarrez, pandemiaren ondorioz, iazko ikasturtean bertan behera utzi behar izan genuen atal hau, baina aurten, egoerak hobera egin duela-eta, pozez beteta ekingo diogu aitxitxa eta amama eta iloben arteko solasaldiari.

Ikasturteko lehenengo elkarrizketarako Marian Alonso amama eta Nora Iriondo iloba elkartu ditugu. Hemen duzue Norak Mariani egindako elkarrizketa.



Kaixo, amama, zer moduz zaude?

Lasai eta pozik. Oso esperientzia polita iruditzen zait zuk niri elkarrizketa hau egitea, emozionatuta nago. Eskerrik asko.

Noiz eta non jaio zinen?

1953ko otsailaren 12an jaio nintzen Payo de Ojeda izeneko Palentziako herri txiki batean.

Umetan, eskolan, zelan bizi zineten Internet eta ordenagailurik gabe?

Ba oso ondo, ez genituen ezagutzen-eta. Dena egiten genuen eskuz, arkatzez eta boligrafoz idazten genuen. Ondo konpontzen ginen.

Eta zelan gogoratzen dituzu eskolako urte haiek?

Oroitzapen onak ditut. Baina harritu egingo zaituen kontutxo bat kontatuko dizut: neskak eta mutilak berezita geunden, neskak gela batean eta mutilak beste batean.

Zer egiten zenuten denbora librean?

Kalean jolasten genuen: sokasaltoan, pilotarekin, ezkutaketan... Lehen ez zegoen gaur egun dagoen trafikoa eta lasai asko jolasten genuen errepidean.

Nora joaten zineten oporretan?

Guk herria genuenez herrira joaten ginen, Payora. Baina begira nola aldatu diren gauzak. Gaur egun bi ordu eta erdian han gaude; lehen, berriz, egun erdia behar izaten genuen ia-ia. Lehenengo Eibartik Bilbora trenez; Bilbotik Cer-



vera izeneko herri batera beste 8 ordu, eta handik autobusa hartu eta ia beste ordu bete herrira iritsi arte.

Noiz izan zenuten etxean lehenengo kotxea?
Aitak ekarri zuen 850 txiki-txiki bat. Guretako izugarria izan zen.

Eta kotxerik gabe nola mugitzen zineten?
Trenez batez ere. Pentsa, Debako hondartzara pega-pega eginda joaten ginen trenean. Gurasoek leihoetatik sartzan zituzten umeak lekua hartzeko (barreak).

Noiz ezagutu zenuen telebista?
12-13 urte izango nituen. Liluratuta begiratzen genion. Bi kate besterik ez zeuden orduan, eta

"Nik ama ezagutu nuen arropa eskuz garbitzen. Lan izugarria egin zuten orduko emakumeek"

nik tenis-partida pila bat ikusi nituen. Koloretakoa beranduago ezagutu nuen, zure amatxo txikia zenean.

Zelan moldatzen zara teknologia berriekin?
Benoa, banoa pixkanaka, baina ez pentsa oso ondo moldatzen naizenik. Egia esan, gustatu ere ez zaizkit asko gustatzen eta...

Zein izan da azkeneko urteotako asmakizunik onena zure ustez?
Duda barik labadora. Nik ama ezagutu nuen arropa eskuz garbitzen. Lan izugarria egin zuten orduko emakumeek. Etxean sartu zen lehenengo garbigailua ikustera bizilagunak eta guzti etorri ziren! Egia da orduan ez genuela hainbeste arropa; aste bitarterako batzuk eta gero asteburuetarako besteren bat. Ez zen gaur egun moduan.

Zertan aldatu da Eibar?
Askoz trafiko gehiago dago orain. Lantegi kopurua asko jaitsi da. Lehen errekan bainatzen ginen. Ni Ubitxan bizi nintzen eta asfaltatu gabe ezagutu nuen. Baserri bat genuen etxe parean, Ubitxa izenekoa. Hortik kalearen izena. Eta Urkiko auzoa eraiki gabe ere ezagutu dut.



Laranja-zko bizkotxo

OSAGIAK :

- Azukrea edo panela 200 g
- Arrautza-goringoak 2
- Arrautza 1
- Jogurt natural 1
- Laranja 2 (horien azala eta zuku erabiliko ditugu)
- Gurina 50 g (urtuta)
- Oliba olio 50 g
- Legami poltsatxo 1
- Banilla-estraktu koilarakadatxo 1



NOLA EGIN:

- 1.- Ontzi batean nahastu azukre edo panela, arrautza, gorringoak eta banilla-estraktua. Jarraian, gehitu laranja azala, zuku, urrutako gurina eta oliba olio eta segi nahasten.
- 2.- Iraztontzi baten laguntzaz gehitu apurka-apurka legamia eta irina. Azkenik, gehitu jogurt naturala.
- 3.- Bota ore a bizkotxo molde batera; horretarako, lehenengo igurtzi ondo oliba olioarekin bizkotxo itsatsita gera ez dadin. Jarri labea 175°-tan berotzen eta bero dagoenean sartu 30-35 minutuz.



TOSTA KOLORETSUA




Txigortu ogi-xerra. Ahuakatea txikitu eta gehitu gatza eta limoi-zuku tanta batzuk. Igurtzi tosta ore horrekin. Gainean jarri pepino-xerrak, tomate zatiak eta ahuntz-gazta xehetua. Oliba olio pixkat isuri gaintetik eta, nahi izanez gero, kalabazazazekin apaindu.

TI-TA




GURUTZEGRAMA




1. Edari bat da. Gorria, zuria edo beltza.
2. Gardena da, eta itsasoetan edo ibaietan aurkitzen da.
3. Mutil baten izena da.
4. Oso langilea eta lur azpian bizi den intsektua.
5. Hor estalagmitak aurkituko dituzu.
6. Gure gorputzean daude eta oso gogorrak dira.
7. Zuhaitzetan egiten dute txoriek.

LABIRINTOA



GURUTZEGRAMA



1	M	L	G	E	A	U	A
2	H	A	A	A	I		
3	E	G	O	I			
4	O	I	L	A	E	M	
5	H	O	I	L			



ZER BALIO DU ANIMALIA BAKOITZAK?

SIMETRIA

Animalia bakoitzak zenbaki bat da. Erreparatu eragiketei eta aurkituko duzu.

$$\text{Spider} + \text{Spider} + \text{Spider} = 15$$


$$\text{Spider} \times \text{Unicorn} = 35$$

$$\text{Chicken} + \text{Spider} + \text{Unicorn} = 20$$

$$\text{Spider} = \square \quad \text{Unicorn} = \square$$

$$\text{Pig} + \text{Chicken} = \square \quad \text{Pig} = \square$$

Mugitu erlojeko erudak hutsunetara, ezberrian duzun irudien simetrikoak izan dituztenak.



LETRA-ZOPA

W I Y O F I X O R B E L Q E A
 D T F A A N E K Z A D U B U I
 N S D O T W Q E C J F R L D D
 N A G A K D O L A T U E B A S
 I S A D O V U W M R K F L B R
 S O U B G X U B Z Q P H R E M
 E Q D N E G U A B K F T Q R N
 H U P M W O R N Z T L U W R F
 I T X H O P F G X F O H P I X
 A R H Y M A W B B N T E V A C
 X A Q O R O S O C H E G X L M
 K H G R C T J A U D A A A A P
 Q O L G G S U E G U D K Y Z Z
 G Q U D N O R D Z W K A S T U
 Q G G P G H F I G F Z Y L I V

UDA
 ITZALA
 IHESI
 UDAZKENA
 HOSTOA
 ORBEL
 ITSASO
 OLATU
 OHARTU
 NEGUA
 UDABERRIA
 HEGAKA



7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **AZAROAK 9** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarteak- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA


Aupa MARKEL, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK!

**Basoan barna** 6 urtetik aurrera

Gaztetan ehiztaria izan ondoren, zahartutakoan, argazkilari bihurtutako aitonaren eta bilobaren istorioa da hau, xume bezain dotore kontatuta. Basoak eta bertako bizitzak erakarrita, aitonaren eskutik naturaren lilura ezagutuko du neskatxak.

**BAT: Partida handia** 8 urtetik aurrera

Kirolean, kontua ez da irabaztea edo galtzea, nola jokutzen duzun baizik. Baina, irabaztea ederra da. Futboleko jokatzeko, esate baterako, dibertigarria izan daiteke, baina taldea osatzeko inoiz aukeratzeko ez bazaituzte, ez da hain dibertigarria. Eta gainera, parte hartu nahi duzun talde horretako entrenatzailea munduko txarrena bada?

**Amaia Lapitz eta Festoseko diskoa** 10 urtetik aurrera

Amaia Lapitz udalekueetan dagoela, Ariane laguna bahitu egingo dute. Amaiarekin nahastuta eramango dute, ordea, eta lagunaren arrastoari jarraituz iritsiko da Egeo itsasoko Greziako uharteetara. Bahitzaileak asmo argia du: Kretan, indusketa-lanetan arkeologo batzuek aspaldi topatu eta duela gutxi lapurturiko Festoseko diskoa berreskuratu nahi du.

**BITXIKERIAK****Hartz zuriek...**

zuri-zuria dute ilea, baina ilearen azpian... azal beltz-beltza dute! Ipar poloan bizi dira eta oso tenperatura baxuak jasan ditzakete, zero azpitik 30 graduraino! Eta nola lortzen dute hori? Ileak ura uxatzen duelako eta, gainera, 11 zentrimetroko koipe-geruza dute beroari eusteko.

**Munduko zuhaitzik zaharrenak...**

4.847 urte ditu! Bai, bai, ondo irakurri duzue. Pinus longaeva espeziekoa da eta Estatu Batuetan dago, Kaliforniako Inyo Basoan.

Pitoi sugea...

sekulako narrastia da. Bizia eta bizkorra da eta horri esker zuhaitzetara igo daiteke animaliaren bat harrapatu eta jateko. Gezurra badirudi ere, gai da orein oso-oso bat irensteko!





Autoa bizirik daگو



Bazen behin, Patxi izeneko mutiko bat auto bat zuena.

Berak bere bizitza egiten zuen, lanera joaten zen, gero jatera joaten zen amamaren etxera, baina den-dena autoarekin egiten zuen.

Egun batean, lanerako bidean, autoak hitz egin zion. Baina Patxi autopistatik zihoan, hori zorte txarra, eta zuhaitz batekin txokatu zen.

Bere familia Patxi ikustera joan zen ospitalera baina ez ziren garaiz iritsi. Hurrengo egunean berriro joan ziren, korriketan autobusera igo eta ospitalera zuzenean.

Ospitalean zeudela Patxi operatu zuten, bost ordu iraun zuen ebakuntzak.

Bost ordu pasa eta gero familiak Patxi ikusi zuen. Oso gaizki zegoela esaten zuen medikuak, oso-oso gaixorik zegoela, baina medikuak sendatuko zela esan zien familiakoei.

Sendatu zen eta autoa auto-tailer batera eraman zuen konpontzeko apurtuta zegoelako.

Langileak esan zion autoak beheko partean bihotza zeukala eta biak beldurtu ziren. Patxik alde egin zuen autoarekin eta bere garajea konturatu zen autoa bizirik zegoela eta berarekin hasi zen hitz egiten autoa hartzen zuen bakoitzean.

Jendea enteratu zen eta baita alkatea ere eta alkateak milioi bat euro eskaini zizkion autoarengatik, baina berak esan zuen pentsatuko zuela. Baina ondo pentsatu eta gero esan zion ezetz, lagunak betirako direla eta EZ DIRELA SALTZEN!!!!

Telmo Olaya Moreno

ZU BAI MARGOLARI!

